## ERRENTERIAKO UDALA

### Gizarte Zerbitzuak

*Iragarkia*

Udalbatzaren Plenoak 2012ko uztailaren 19an eginiko ohiko Osoko Bilkuran, «Ezintasunak dituzten pertsonenetzako aparkaleku txartela arautzen duen udal ordenantza»ri hasierako onespena eman zion.

Aipatutako erabakia erakusketa publikoan jarri zen 30 laneguneko epez, iragarkia 151 zenbakiduna Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN 2012ko abuztuaren 8an argitaratu zelarik.

Erakusketa publiko aldia amaitu da eta epe horretan ez da erreklamazio edota iradokizunik aurkeztu. Beraz., apirilaren 2ko 7/1985 legea, Errejimen Lokaleko Oinarriak arautzen dituena, 49 in fine artikuluan adierazitakoarekin bat etorriz, orain arte behin-behinekoa zen onespenaren erabakia, behin betiko bihurtu da.

Eta orohar guztiek jakin dezaten eta eraginak izan ditzan argitaratzen dut. Era berean, jakinarazten da egintza honek administrazioaren bidea agortzen duela eta horren kontra administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango dela bi hilabeteko epean, iragarki hau Gipuzako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita. Halaber, egoki irizten diozun beste edozein errekurtso aurkeztu ahal izango duzu.

Errenteria, 2012ko azaroaren 6a.—Alazne Korta Zulaika, Alkate ordea. (10387)

### EZINTASUNAK DITUZTEN PERTSONENTZAKO APARKALEKU TXARTELA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA

AURKIDEA


Zergatien azalpena

Atariko titulua

I. Kapitulua. Xedapen Orokorrak

1. artikulua. Helburua

2. artikulua. Lurralde esparrua.

II. Kapitulua. Aparkaleku Txartelen Titularrak

3. artikulua. Aparkaleku txartelen titularrak.

Lehen titulua. Aparkaleku txartela lortu, erabili eta funtzionatzeko prozedura.

I. Kapitulua. Aparkaleku txartela lortu eta berritzeko prozedura.

4. artikulua. Aparkaleku txartela emateko prozedura

5. artikulua. Aparkaleku txartela berritzeko prozedura

II. Kapitulua. Txartelaren ezaugarriak, erabilera baldintzak eta funtzionamendua

6. artikulua. Aparkaleku txartelaren ezaugarriak

7. artikulua. Erabilera baldintzak

8. artikulua. Funtzionamendua

Bigarren titulua. Erregimen zigortzailea

I. Kapitulua. Arau hausteak, zigorrak, badaezpadako neurriak eta erantzuleak

9. artikulua. Arau hausteak

10. artikulua. Arau hauste motak

11. artikulua. Zigorrak

12. artikulua. Badaezpadako neurriak

13. artikulua. Arduradunak


## AYUNTAMIENTO DE ERRENTERIA

### Servicios Sociales

*Anuncio*

El Pleno de la Corporación en sesión ordinaria celebrada con fecha 19 de julio de 2012, acordó aprobar inicialmente la «Ordenanza municipal reguladora de la tarjeta de estacionamiento para personas con discapacidad».

Dicho acuerdo ha sido expuesto al público durante un plazo de 30 días hábiles, mediante su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa n.º151 de fecha 8 de agosto de 2012.

Transcurrido el período de exposición pública y no habiéndose presentado en el mismo reclamación ni sugerencia alguna, de acuerdo con lo establecido en el artículo 49 in fine de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, el acuerdo de aprobación hasta ahora provisional, deviene definitivo.

Lo que se publica para general conocimiento y efectos, señalando que este acto agota la vía administrativa y contra el mismo se podrá interponer Recurso Contencioso-administrativo ante el Tribunal de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contados a partir del día siguiente de la publicación del presente anuncio en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, sin perjuicio de que pueda interponer cualquier otro que tenga por conveniente.

Errenteria, a 6 de noviembre de 2012.—La Alcaldesa en funciones, Alazne Korta Zulaika. (10387)

### ORDENANZA MUNICIPAL REGULADORA DE LA TARJETA DE ESTACIONAMIENTO PARA PERSONAS CON DISCAPACIDAD

INDICE


Exposición de motivos

Título preliminar

Capítulo I. Disposiciones Generales

Artículo 1. Objeto

Artículo 2. Ámbito territorial

Capítulo II. Titulares de las tarjetas de estacionamiento

Artículo 3. Titulares de tarjetas de estacionamiento

Título Primero. Procedimiento de obtención, uso y funcionamiento de la tarjeta de estacionamiento

Capítulo I. Procedimiento para la obtención y renovación de la tarjeta de estacionamiento

Artículo 4. Procedimiento para la concesión de la tarjeta de estacionamiento

Artículo 5. Procedimiento de renovación de la tarjeta de estacionamiento

Capítulo II. Características, condiciones de uso y funcionamiento de la tarjeta de estacionamiento

Artículo 6. Características de la tarjeta de estacionamiento

Artículo 7. Condiciones de uso

Artículo 8. Funcionamiento

Título Segundo. Régimen Sancionador

Capítulo I. Infracciones, sanciones, medidas cautelares y responsables

Artículo 9. Infracciones

Artículo 10. Clases de infracciones

Artículo 11. Sanciones

Artículo 12. Medidas cautelares

Artículo 13. Responsables

II. Kapitulua. Prozedura.
14. artikulua. Zehapen-prozedura
Lehen xedapen gehigarria
Bigarren xedapen gehigarria
Xedapen indargabetzailea
Azken xedapena.

ZERGATIEN AZALPENA

Elbarriak gizarteratzeko apirilaren 7ko 13/1982 Legeak, bere 60. artikuluan, espreski adierazten du Udalek neurri egokiak hartu behar dituztela mugitzeko arazo larriak dituzten elbarrien automobilak aparkatzeko erraztasunak emateko, hori kolektibo horren gizarteratzea eta lanbideratzea sustatzeko tresna egokia baita. Izan ere, dituzten mugikortasun arazoak direla eta garraio publikoak erabiltzeko garaian muga handiak dituzten pertsona askori esparru eta zerbitzu komunitarioetara sartzeko aukera ematen die, eta ibilgailu partikularrak erabilita modu autonomoan iristen dira esparru horietara, helmuga duten tokian txartelak aparkatzeko ematen dizkien abantailak baliatuta.

Europako Batasuneko kontseiluak, 1998ko ekainaren 4an, Estatu kideentzako gomendio bat onartu zuen ezintasunak dituzten pertsonentzako aparkaleku txartel bateratua ezartzeko, Estatu kideek elkarrekiko onarturiko eredu komunitario uniformearen arabera, txartel horien titularrek Europa osoan izan ditzaten haiekin loturiko aparkaleku erraztasunak, betiere pertsona jakin hori dagoen lurraldean indarrean dauden arau nazionalen arabera.

Gogoan izanik Kontseiluaren Ebazpenaren eta 1996ko abenduaren 20an Kontseiluaren barnean bilduriko Estatukideen Gobernuen Ordezkarien izpirituaren arabera, ezintasunak dituzten pertsonen aukera berdintasunari begira, ezintasunak dituen pertsona orok izan behar du aukera bere lanbideratzea eta gizarteratzea bultzatzeko neurri gehigarri eta zehatzez gozatzeko.

Ekintza positiboko neurri horien barnean, abenduaren 4ko20/1997 Legearen bidez, Euskadiko Irisgarritasuna Sustatzeko, botere publikoek betebeharra dute mugikortasun murriztua duten pertsonen ibilgailuek soilik erabiltzekoak diren aparkalekuen erreserba egiteko.

Euskal Autonomi Erkidegoak, aurreikuspen horiek betetzeko eta 5/1996 Legeak arau garapenaren eta gizarte zerbitzuen plangintzaren alorrean emaniko eskumenen arabera, abenduaren 5ean 256/2000 Dekretua eman zuen. 1. artikuluan jasotakoaren arabera, honako xede hau du dekretu horrek: «Ezintasunak dituzten pertsonentzako aparkaleku txartel bakarra arautzea eta eredu komunitariora egokitzea», eta 6.artikuluan xedaturikoaren arabera, pertsona interesatua bizi den Udalaren egitekoa da txartel hori ematea eta Dekretu horretan arauturiko prozeduraren eta ereduaren arabera.

Euskal Autonomia Erkidegoko udalek emaniko txartel horiek, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerri guztietan, lurralde espainiar osoan eta Europako Batasuneko estatu kide guztietan izango dute balioa, udal komunitario horiek ibilgailuen antolamendu eta zirkulazioaren alorrean zehaztuta dituzten baldintzetan.

Ildo horretatik, Trafiko, Ibilgailuen Zirkulazio eta Bide Segurtasunaren inguruko Legearen Testu Artikulatua berritzen duen abenduaren 19ko 19/2001 Legearen Laugarren Xedapen Gehigarriak, martxoaren 2ko 339/1990 Errege Dekretu Legegilearen bidez onartua, zera xedatzen du:

Capítulo II. Procedimiento
Artículo 14. Procedimiento sancionador
Disposición adicional primera
Disposición adicional segunda
Disposición derogatoria primera
Disposición final

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La Ley 13/1982, de 7 de abril, de integración social de los minusválidos, en su artículo 60 establece expresamente que los Ayuntamientos deben adoptar las medidas adecuadas para facilitar el estacionamiento de los vehículos automóviles pertenecientes a los minusválidos con problemas graves de movilidad, constituyendo la misma un instrumento eficaz para favorecer la integración social y laboral de este colectivo, al facilitar el acceso a los espacios y servicios comunitarios a muchas personas que al verse limitadas para utilizar los transportes públicos por estar afectadas por importantes problemas de movilidad, acceden a los mismos de manera autónoma mediante vehículos particulares, beneficiándose en su punto de destino de las ventajas de aparcamiento que posibilita la tarjeta.

El consejo de la Unión Europea aprobó con fecha 4 de junio de 1998 una recomendación a los Estados miembros para que establezcan una tarjeta de estacionamiento unificada para personas con discapacidad, con arreglo a un modelo comunitario uniforme reconocido mutuamente por los Estados miembros, a fin de que los titulares de estas tarjetas puedan disfrutar en toda Europa de las facilidades de estacionamiento relacionadas con las mismas, con arreglo a las normas nacionales vigentes del país en que se encuentre la persona.

Considerando que con arreglo al espíritu de la Resolución del Consejo y de los Representantes de los Gobiernos de los Estados miembros reunidos en el seno del Consejo, de 20 de diciembre de 1996, sobre la igualdad de oportunidades de las personas con discapacidades, toda persona con discapacidad debe poder disfrutar de las medidas adicionales concretas dirigidas a favorecer su integración profesional y social.

Dentro de estas medidas de acción positiva, mediante Ley 20/1997 de 4 de diciembre, para la Promoción de la Accesibilidad del País Vasco, se obliga a los poderes públicos a hacer una reserva de aparcamientos destinados al uso exclusivo de vehículos de personas con movilidad reducida.

La Comunidad Autónoma del País Vasco en cumplimiento de dichas previsiones y en virtud de las competencias en materia del desarrollo normativo y planificación de los servicios sociales atribuidas por la Ley 5/1996, de 18 de octubre, de Servicios Sociales, dictó con fecha de 5 de diciembre el Decreto 256/2000, que regula la tarjeta única de estacionamiento para personas con discapacidad y su adaptación al modelo comunitario uniforme, correspondiendo su concesión según lo dispuesto en su articulo 6, al Ayuntamiento donde reside la persona interesada y de acuerdo con el procedimiento y el modelo regulado en dicho Decreto.

Estas tarjetas expedidas por los Ayuntamientos del País Vasco, tendrán validez en todos los municipios de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en todo el territorio español y en los estados miembros de la Unión Europea, en los términos que los respectivos Ayuntamientos comunitarios tengan establecidos en materia de ordenación y circulación de vehículos.

En esta línea, la Disposición Adicional Cuarta de la Ley 19/2001, de 19 de diciembre, de reforma del Texto Articulado de la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos y Seguridad Vial, aprobada por Real Decreto Legislativo 339/1990, de 2 de marzo, establece:

«Udalerriek, arau horren 7. artikuluak ematen dizkien eskumenak erabiliz eta apirilaren 7ko 13/1982 Legearen 60. artikuluak xedaturikoaren arabera, Lege hori indarrean hasi eta hurrengo urtean, mugikortasun arazo larriak dituzten pertsona ezinduentzako aparkaleku txartela emateko eta lege horretatik etorritako eskubideak eraginkor izan daitezen beharreko neurriak hartu beharko dituzte, ezintasunak dituzten pertsonentzako aparkaleku txartela sortzearen inguruan Europako Batasuneko Kontseiluak emaniko Gomendioa kontuan harturik».

Errenteriako Udala, arazo horrekin aspaldidanik jabeturik, aparkaleku txartel horiek ematen ari zaizkie ezintasunak eta mugitzeko arazoak dituzten pertsonei, araudiak zehaztutako ereduaren arabera.

Ordenantza honek legearen eskakizunak bete nahi ditu, indarrean dagoen legeriak, ezintasunak eta mugitzeko arazoak dituzten pertsonentzako aparkaleku txartelak eman, erabili eta funtzionatzearen inguruan, Udal Administrazioari ematen dizkion ahalmenak erabiliz.

## ATARIKO TITULUA

### 1. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua. Helburua.*

Ordenantza honen xedea da ezintasunak dituzten pertsonentzako aparkaleku txartela emateko prozedura eta hura erabiltzeko eta funtzionatzeko baldintzak arautzea.

*2. artikulua. Lurralde esparrua.*

Ezintasunak dituzten pertsonentzako aparkaleku txartelak Euskal Autonomia Erkidegoko udalerri guztietan, lurralde espainiar osoan eta Europako Batasuneko estatu kide guztietan izango du balioa, eta txartelaren titularrari eskubidea emango dio erreserbaturiko aparkalekuak erabiltzeko eta ibilgailuak gelditu eta aparkatzeko eskubide guztiak izateko, dauden lurraldeko udal komunitario horiek ibilgailuen antolamendu eta zirkulazioaren alorrean zehaztuta dituzten baldintzetan.

### II. KAPITULUA. APARKALEKU TXARTELEN TITULARRAK

*3. artikulua. Aparkaleku txartelen titularrak.*

Errenteriako Udalak emaniko ezintasunak dituzten pertsonentzako aparkaleku txartelen titularrak izan daitezke, Errenterian erroldaturik egonik eta urritasun fisiko edo psikiko larriren bat izanik, Foru Aldundiaren balorazio eta Orientazio Unitatearen baiezko diktamena lortu duten pertsona fisikoek, indarrean dagoen legerian zehaztutako balorazio irizpideen arabera.

«Los Municipios en el ejercicio de las competencias que les atribuye el artículo 7 de esta norma y en virtud de lo dispuesto en el articulo 60 de la Ley 13/1982, de 7 de abril, durante el año siguiente a la entrada en vigor de esta Ley, deberán adoptar las medidas necesarias para la concesión de la tarjeta de aparcamiento para personas discapacitadas con problemas graves de movilidad y para la efectividad de los derechos que de la misma derivan, teniendo en cuenta la Recomendación del Consejo de la Unión Europea sobre la creación de una tarjeta de estacionamiento para personas con discapacidad».

El Ayuntamiento de Errenteria, sensible desde hace tiempo con esta problemática, viene concediendo dichas tarjetas de estacionamiento a las personas con discapacidad y con movilidad reducida, de acuerdo al modelo determinado reglamentariamente.

Esta Ordenanza persigue dar cumplimiento a las exigencias legales, en uso de las atribuciones que a la Administración Municipal le confiere la legislación vigente expuesta, en relación con la concesión, uso y funcionamiento de las tarjetas de estacionamiento para personas con discapacidad y con movilidad reducida.

## TITULO PRELIMINAR

### CAPITULO I. DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1. Objeto.*

La presente ordenanza tiene por objeto regular el procedimiento para la concesión de la tarjeta de estacionamiento para personas con discapacidad y las condiciones de uso y funcionamiento de la misma.

*Artículo 2. Ámbito territorial.*

La tarjeta de estacionamiento para personas con discapacidad tiene validez en todos los municipios de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en todo el territorio español y en los estados miembros de la Unión Europea, y acreditará a la persona titular de la misma para utilizar los estacionamientos reservados y disfrutar de los mismos derechos sobre estacionamiento y aparcamiento de vehículos, en los términos que los respectivos Ayuntamientos comunitarios tengan establecido en materia de ordenación y circulación de vehículos.

### CAPITULO II. TITULARES DE LAS TARJETAS DE ESTACIONAMIENTO

*Artículo 3. Titulares de tarjetas de estacionamiento.*

Podrán ser titulares de la tarjeta de estacionamiento para personas con discapacidad expedido por el Ayuntamiento de Errenteria, aquellas personas físicas que estando empadronadas en el municipio de Errenteria y estando afectadas de una deficiencia física o psíquica grave, hayan obtenido el dictamen afirmativo de la Unidad de Valoración y Orientación de la Diputación Foral, según los criterios de valoración establecidos en la legislación vigente.

LEHEN TITULUA

APARKALEKU TXARTELA LORTU, ERABILI ETA FUNTZIONATZEKO PROZEDURA

I. KAPITULUA. APARKALEKU TXARTELA LORTU ETA BERRITZEKO PROZEDURA

*4. artikulua. Aparkaleku txartela emateko prozedura.*

1. Espedientea pertsona interesdunak edo haren legezko ordezkariak eskatuta hasiko da. Eskaera Errenteriako Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztuko da.

Egiten diren eskaerek, azaroaren 26ko 30/1992 Herri Administrazioen Erregimen Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 70. artikuluak xedaturikoaz gainera, ondorengo dokumentazioa bildu beharko dute:

— Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.

— Minusbaliotasun mailaren egiaztatze-ziurtagiria (Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politika saileko txostena).

— Karnet tamainako 2 argazki.

Alkatetza edo zinegotzi ordezkariaren ebazpenez aurkeztu beharreko dokumentazioa aldatu ahal izango da, aldez aurretik Gizarte Zerbitzuak Sailaren aldeko txostena eman badu.

2. Espedientea hasteko eskabidea bete beharrekoak bete ezean, eskatzaileari eskatuko zaio 10 eguneko epean akatsa zuzen dezala edo nahitaezko agiriak aurkez ditzan, eta, era berean, ohartaraziko zaio ezen hori egin ezean, bere eskaerari uko egin diola ulertuko dela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 71.1. eta 42.1. artikuluetan ezarri bezala.

3. Egindako eskaeraren erabakia aparkaleku txartelaren eskaera egiten denetik hasi eta 3 hileko epean jakinaraziko zaio interesdunari. Aipatu epean berariazko ebazpena emango ez balitz, ulertuko da eskaera onartua dagoela, hori guztia berariazko ebazpena emateko betebeharraren kalterik gabe, kasu guztietan hori berretsi beharko duena.

4. Udalak egokitzat hartzen dituen gailuak sartu ahal izango dizkio ematen duen txartelari hura jatorrizkoa dela ziurtatzeko eta egin daitezkeen legez kanpoko manipulazio edo kopiak baztertzeko. Era berean, aukera izango du txartelean beharrezko irizten dituen datu osagarriak sartzeko, txartelaren erabilera egokia bermatzeko.

5. Udaltzaingoak egingo ditu aparkaleku txartelen erabileraren zaintza eta kontrol lanak.

*5. artikulua. Aparkaleku txartela berritzeko prozedura.*

1. Txartela 5 urtean behin berrituko da, haren titularraren ezintasunaren balorazioan gerta litezkeen aldaketen kalterik gabe, aldaketa horiek txartelaren indarraldiaren galera dakartenean, baita balorazio unitateek eginiko diktamenek txartela berrikusteko muga data 5 urtetik beherako epearekin ezartzen duten kasuan ere, kasu horretan aipaturiko diktamenean zehaztutako data hartuko baita kontuan.

TITULO PRIMERO

PROCEDIMIENTO DE OBTENCIÓN, USO Y FUNCIONAMIENTO DE LA TARJETA DE ESTACIONAMIENTO

CAPITULO I. PROCEDIMIENTO PARA LA OBTENCIÓN Y RENOVACIÓN DE LA TARJETA DE ESTACIONAMIENTO

*Artículo 4. Procedimiento para la concesión de la tarjeta de estacionamiento.*

1. El expediente se iniciará a solicitud de la persona interesada o de su representante legal. La solicitud se presentará en el Registro General del Ayuntamiento de Errenteria.

Las solicitudes que se formulen deberán contener, además de lo dispuesto en el artículo 70 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, la siguiente documentación:

— Fotocopia del Documento Nacional de Identidad.

— Reconocimiento de grado de minusvalía (informe del Departamento de Política Social de la Diputación Foral de Gipuzkoa).

— 2 Fotografías tamaño carnet.

La documentación a presentar podrá ser modificada por resolución de Alcaldía o Concejal delegado previo informe favorable del Departamento de Servicios Sociales.

2. Si la solicitud de iniciación no reúne los requisitos exigidos, se requerirá a la persona solicitante para que, en un plazo de 10 días, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, estando obligado el Ayuntamiento a dictar resolución expresa sobre esta solicitud, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 71.1 y 42.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

3. La resolución de la solicitud de la persona interesada será notificada a la misma en el plazo máximo de 3 meses, a partir de la fecha de solicitud de la tarjeta de estacionamiento. En el caso de que no recayera resolución expresa en dicho plazo, deberá entenderse estimada la solicitud, todo ello sin perjuicio de la obligación de dictar resolución expresa que en todo caso deberá ser confirmatoria del mismo.

4. El Ayuntamiento podrá incorporar a la tarjeta que se expida los dispositivos que estime oportunos, para garantizar la originalidad de la misma y comprobar las manipulaciones o copias ilegales. Asimismo podrá incluir en la tarjeta los datos complementarios que estime necesarios con el fin de garantizar el buen uso de la tarjeta.

5. Las tareas de vigilancia y control de la utilización de las tarjetas de estacionamiento serán realizadas por la Policía Local.

*Artículo 5. Procedimiento de renovación de la tarjeta de estacionamiento.*

1. La tarjeta deberá de renovarse cada 5 años, sin perjuicio de los cambios que pudieran producirse en la valoración de la discapacidad del titular de la misma, que conlleven la pérdida de su vigencia, así como en el caso de dictámenes emitidos por las unidades de valoración que establezcan una fecha límite de revisión de la tarjeta con un plazo inferior a 5 años, en cuyo supuesto se estará a la fecha determinada en el dictamen mencionado.

Txartela berritzeko aurreko artikuluan aurreikusitako prozedura jarraituko da, eta aurreko txartelaren zenbaki bera duen txartela emango da. Berria eskuratzeko iraungitako txartela eman beharko da.

2. Interesdunak txartela iraungi baino 3 bat lehenago gutxienez aurkeztu behar du aparkaleku txartela berritzeko eskaera, aurrekoaren indarraldia bukatzean txartel berria eduki ahal izateko.

3. Txartela lapurtu edo galdu izanagatik berritzeko, dagokion salaketaren justifikazioa aurkeztu beharko du interesdunak. Hondatu izanagatik berritu behar bada, hondatutako txartela aurkeztu beharko du, eta Udalak, kasu horietan guztietan, txartel berria emango dio aurrekoaren zenbaki berarekin eta iraungitze data berarekin.

4. Gipuzkoako Foru Aldundian eskumena duen Sailak emaniko txostenak behin betiko izaera duen kasuetan, interesdunak eskatuta hasiko da txartela berritzeko prozedura administratiboa beste diktamenik eskatu beharrik izan gabe, Udalak espreski halaxe eskatzen duen kasuetan izan ezik.

5. Udaltzaingoak edozein unetan beharrezkoa irizten duen dokumentazio osagarria edota informazioa eskatu ahal izango dio txartelaren titularrari.

## II. KAPITULUA. TXARTELAREN EZAUGARRIAK, ERABILERA BALDINTZAK ETA FUNTZIONAMENDUA

*6. artikulua. Aparkaleku txartelaren ezaugarriak.*

Aparkaleku txartelaren ezaugarriak, abenduaren 5eko 256/2000 Dekretuaren I. Eranskinean zehaztutakoak dira, dekretu horrek arautzen baitu ezintasunak dituzten pertsonentzako aparkaleku txartela eta egokitzen baitu eredu komunitario uniformera.

Aipaturiko Dekretu horren 5. artikuluan xedaturikoaren arabera, Ezintasunak dituzten Pertsonentzako Aparkaleku Txartela doan egin eta emango dio Udalari gizarte zerbitzuen alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Sailak.

*7. artikulua. Erabilera baldintzak.*

1. Txartela pertsonala eta besterenezina da, ezintasuna duen pertsona izango da haren titularra eta soilik erabili ahal izango da titularrak, gidari gisa edo bidaiari gisa, haren jabetzako ibilgailuetan edo ezindua garraiatzeko erabiltzen den beste edozein ibilgailutan bidaiatzen duenean.

2. Aparkaleku txartela, jatorrizko dokumentua betiere, aurreko parabrisean jarriko da, ibilgailuaren kanpoaldetik haren gainaldea irakurtzeko moduan, eta kontrolerako erakutsiko da, eskumena duten agintaritzaren agenteek eskatzen badute.

Inolaz ere ezin izango dira aparkaleku txartelen kopiak erabili.

Aparkaleku txartelen kopiak erabiltzeak ez du inolako balio ofizialik izango, eta horrenbestez, ulertuko da, fotokopia horiek dituen ibilgailuak ez duela beharreko baimenik, eta beraz, indarrean dagoen legeriaren arabera jardungo da haren aurka.

3. Horretarako egokituriko lekuetan aparkatzeko balio izango du, baita aparkatzea debekatua dagoen lekuetan ere, behar duten denborarako, honako salbuespen hauekin:

Para la renovación se seguirá el proceso previsto en el artículo anterior, emitiéndose una tarjeta con idéntica numeración a la anterior. Será imprescindible entregar la tarjeta caducada para la obtención de la nueva.

2. La persona interesada deberá presentar la solicitud de renovación de la tarjeta de estacionamiento al menos 3 meses antes de la fecha de caducidad de la misma, a los efectos de poder disponer de la nueva tarjeta a la fecha de finalización del plazo de vigencia de la anterior.

3. La renovación de la tarjeta por sustracción o pérdida, exigirá que por parte de la persona interesada se presente justificación de la denuncia correspondiente. En el caso de renovación por deterioro, se deberá presentar la tarjeta deteriorada, emitiendo el Ayuntamiento, en todos estos casos, la nueva tarjeta con el mismo número y la misma fecha de caducidad que la anterior.

4. En los casos en los que el informe emitido por el Departamento competente de la Diputación Foral de Gipuzkoa tuviese carácter definitivo, el procedimiento administrativo para la renovación de la tarjeta se iniciará a petición de la parte interesada sin la necesidad de exigir un nuevo dictamen, salvo en aquellos casos en que el Ayuntamiento expresamente así lo solicite.

5. La Policía Local podrá requerir a el/la titular de la tarjeta, en cualquier momento, la información y/o documentación complementaria que estime necesaria.

## CAPITULO II. CARACTERÍSTICAS, CONDICIONES DE USO Y FUNCIONAMIENTO DE LA TARJETA

*Artículo 6. Características de la tarjeta de estacionamiento.*

Las características de la tarjeta de estacionamiento son las definidas en el Anexo I del Decreto 256/2000, de 5 de diciembre, por el que se regula la tarjeta de estacionamiento para personas con discapacidad y la adaptan al modelo comunitario uniforme.

Según lo dispuesto en el artículo 5 del mencionado Decreto, la Tarjeta de Estacionamiento para Personas con Discapacidad, será editada y suministrada gratuitamente al Ayuntamiento por el Departamento del Gobierno Vasco competente en materia de servicios sociales.

*Artículo 7. Condiciones de uso.*

1. La tarjeta tiene carácter personal e intransferible, siendo su titular la persona con discapacidad, y sólo podrá ser utilizada cuando su titular viaje, bien como conductor o como ocupante, en vehículos de su propiedad o en cualquier otro mientras sea empleado para su transporte.

2. La tarjeta de estacionamiento, siempre documento original, se colocará en el parabrisas delantero, de modo que su anverso sea legible desde el exterior del vehículo, y se expondrá para su control, si los agentes de la autoridad competente así lo requieren.

En ningún caso se permite el uso de copias de tarjetas de estacionamiento.

El uso de copias de tarjetas de estacionamiento no poseerá ningún valor oficial, por lo que se entenderá que el vehículo con estas fotocopias no posee tal autorización, y por consiguiente se actuará contra él según la legislación vigente.

3. Será valida para estacionar en los lugares señalizados al efecto e incluso en los lugares de estacionamiento prohibido durante el tiempo indispensable y con las siguientes excepciones:

— Oinezkoentzako eremuak, nasak edo espaloiak eta oinezkoentzako igarobideak.

— Gelditzea debekatua dagoen lekuak.

— Igarobideak edo larrialdiko irteerak oztopatzen diren lekuak.

— Zirkulazio erreiak murrizten dituzten esparruak.

Ordutegi mugatua duten aparkaleku eremuetan (TAO) aparkatzeari dagokionean, dagokion Ordenantzak xedaturikoa beteko da.

4. Ordenantza honetan aparkaleku txartelaren titularrak diren pertsonentzako zehaztutako eskubideak, Europako Batasuneko Kontseiluak 1998ko ekainaren 4an gomendaturiko 98/376/CE eredura egokitzen diren txarteletarako soilik onartuko dira.

5. Aparkaleku txartelaren titularraren betebeharra izango da hura garbitasun baldintza eta egoera egokietan eduki eta zaintzea, txartelean idatzitako datu espezifikoak uneoro garbi ikusi ahal izan daitezen.

6. oinarrizko daturen bat irakurtezina duten txartelak ez dira baliagarriak izango.

*8. artikulua. Funtzionamendua.*

1. Aparkaleku txartelaren titularrek Udalari jakinarazi beharko diote, gehienez ere hamabost eguneko epean, hura emateko arrazoi izan ziren inguruabarrak aldatzen badira, edo txartela galdu, lapurtu edo hondatu bada. Era berean, aparkaleku txartelaren titularraren hilez gero epe horren barnean jakinaraziko da.

2. Txartela galdu, lapurtu edo hondatzen bada, haren titularrei emaniko eskubideak ezin izango dira erabili berria egiten ez den bitartean.

Txartel berriaren eskaera Ordenantza honen 4. artikuluan xedaturikoaren arabera egingo da.

3. Iraungitako txartel oro baliogabea da ondorio guztietarako.

II. TITULUA

ERREGIMEN ZIGORTZAILEA

I. KAPITULUA. ARAU HAUSTEAK, ZIGORRAK, BADAEZPADAKO NEURRIAK ETA ERANTZULEAK

*9. artikulua. Arau hausteak.*

1. Arau hauste administratiboa izango da Ordenantza honek jasotzen dituen xedapenak ez betetzea eta bertan ezartzen diren debekuak urratzea.

2. Aplikatu beharreko berariazko araudi sektorialik izan ezean, Alkatetza -Lehendakaritzak edo hark aukeratutako Organoak zigortuko ditu Ordenantza honetan xedaturikoaren arau hausteak, Titulu honetan zehaztutakoaren arabera, legeriak ezarritako mugen barnean eta kasu bakoitzean egon daitezkeen erantzukizun penalei kalterik egin gabe.

3. Ibilgailuen aparkaleku erregimenaren inguruko arau hausteak, Trafiko, Ibilgailuen Zirkulazio eta Bide Segurtasunaren inguruko Legearen Testu Artikulatua onartzen duen martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuan, Zirkulazio Araudi Orokorra onartzen duen azaroaren 21eko1428/2003 Errege Dekretuan, eta Errenteriako Trafikoko Udal Ordenantzan xedatutakoaren arabera zigortuko dira.

— Zonas peatonales, andenes o aceras y pasos de peatones.

— En prohibición de parada.

— Lugares que obstruyan vados o salidas de emergencia.

— Espacios que reduzcan carriles de circulación.

En cuanto a los estacionamientos en las zonas de estacionamiento con limitación horaria (OTA), se dará cumplimiento a lo que disponga la correspondiente Ordenanza.

4. Los derechos especificados en la presente ordenanza para las personas titulares de tarjeta de estacionamiento, solamente serán reconocidos para las tarjetas que se ajusten al modelo Recomendado por el Consejo de la Unión Europea, 98/376/CE, de fecha 4 de junio de 1998.

5. Es obligación de el/la titular de la tarjeta de estacionamiento el mantenimiento y cuidado de la misma en adecuadas condiciones de limpieza y estado, que conlleve en todo instante la visibilidad de los datos específicos inscritos en la tarjeta.

6. No serán válidas las tarjetas ilegibles en alguno de sus datos fundamentales.

*Artículo 8. Funcionamiento.*

1. Los/as titulares de la tarjeta de estacionamiento deberán comunicar al Ayuntamiento, en el plazo máximo de quince días, cualquier variación de las circunstancias que motivaron su concesión, así como en su caso, la pérdida, robo y destrucción de la misma. Igualmente se deberá comunicar en dicho plazo el fallecimiento de el/la titular de la tarjeta de estacionamiento.

2. En caso de pérdida, robo o destrucción de la tarjeta, no se podrá hacer uso de los derechos reconocidos a sus titulares hasta la expedición de una nueva.

La petición de una nueva tarjeta se realizará según lo dispuesto en el artículo 4 de esta Ordenanza.

3. Toda tarjeta caducada es nula a todos los efectos.

TITULO SEGUNDO

RÉGIMEN SANCIONADOR

CAPITULO I. INFRACCIONES, SANCIONES, MEDIDAS CAUTELARES Y RESPONSABLES

*Artículo 9. Infracciones.*

1. Constituye infracción administrativa el incumplimiento de las disposiciones que contiene esta Ordenanza y la vulneración de las prohibiciones que en ella se establecen.

2. En defecto de normativa sectorial específica aplicable, las infracciones a lo dispuesto en esta Ordenanza serán sancionadas por la Alcaldía-Presidencia u Órgano en quien delegue, de acuerdo con lo establecido en el presente Título, dentro de los límites que la legislación autoriza y sin perjuicio de las responsabilidades penales a que hubiera lugar en cada caso.

3. Las infracciones relativas al régimen de estacionamiento de vehículos serán sancionadas con arreglo a lo dispuesto en el Real Decreto Legislativo 339/1990, de 2 de marzo, por el que se aprueba el texto articulado de la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial, en el Real Decreto 1428/2003, de 21 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento General de Circulación y en la Ordenanza General de Tráfico de Errenteria.

Aurreko araudian oinarriturik, ezintasunak dituzten pertsonentzako erreserbetan baimendu gabeko ibilgailuak aparkatuz gero, arau hauste horri dagokion zigorra jarriko da behar ez den lekuan aparkatzeagatik eta ibilgailua garabiak eraman eta izendatzen den tokian gordeko da.

Horretarako, baimendu gabeko ibilgailua izango da, aparkaleku txartelik ez duena nahiz aparkaleku txartel baliogabea duena edo txartela behar ez bezala erabili duena.

*10. artikulua. Arau hauste motak.*

1. Arau hausteak arinak, larriak eta oso larriak izango dira.

2. Arau hauste arinak dira Ordenantza honetan jasotako arauen aurka eginikoak, hurrengo ataletan larri edo oso larri gisa kalifikatzen ez direnean. Hain zuzen ere, honako hauek arau hauste arinak dira:

a) Ibilgailuaren kanpoaldetik txartel orijinalaren aurrealdea ez irakurtzeko moduan jartzea.

b) Aparkaleku txartel hondatua jartzea edo ezintasuna duten pertsonentzako aparkaleku txartelaren titularra nor den jakitea ezinezkoa edo zaila egiten duen txartela jartzea.

3. Arau hauste larriak dira Ordenantza honetan sailkaturiko jarrerak, honako hauekin loturikoak:

a) Aparkaleku txartela erabiltzea, ibilgailua iristean edo irtetean, titularra bertan ez dagoenean.

b) Jatorrizko aparkaleku txartelaren kopiak erabiltzea.

c) Udaltzaingoaren agenteekin ez kolaboratzea edo/eta txartelen zaintzarako beharreko egiaztapenak egiten ez uztea.

d) Udalarekin ez kolaboratzea, ikuskatze-lanak egiten ari dela, Udalak informazioa edo dokumentazio osagarria eskatzen dionean.

e) Iraungitako txartela erabiltzea.

4. Oso arau hauste larriak dira honako jarrera hauek:

a) Aparkaleku txartela, aparkaleku txartelaren titularra garraiatzen ez duen beste ibilgailu baten erabiltzaile edo jabeari uztea.

b) Txartel manipulatua, faltsutua, ezeztatua edo hildako pertsona batena erabiltzea.

c) Datu faltsuak edo okerrak nahita ematea aparkaleku edo erreserba berezien txartelen eskaeretan, txartel horiek emateko funtsezkoak direnean.

d) Txartela aldi baterako eteteko ebazpen irmoa betetzeko aparkaleku txartela ez entregatzea.

e) Ordenantza honen aurkako arau hausteak egiteagatik aldi baterako eten diren txartelak erabiltzea.

*11. artikulua. Zigorrak.*

1. Zigorrak jartzerakoan, arau haustea ekarri duen ekintzaren larritasunaren araberakoa izango da aplikaturiko zigorra, eta aplikatu beharreko zigorraren maila zehazteko bereziki kontuan hartuko da nahita egin den edo arau haustea errepikatu den, eragindako kalteen izaera eta berriz egitea, urte batean izaera bereko arau hauste bat baino gehiago izateagatik erabaki finkoaren bidez halaxe adierazi denean.

Sobre la base de la anterior normativa, el estacionamiento de vehículos no autorizados en las reservas concedidas para personas con discapacidad dará lugar a la correspondiente sanción por estacionamiento indebido así como a la retirada del vehículo por la grúa, y su depósito en el lugar que se designe.

A tal efecto, se considerará vehículo no autorizado, tanto el que no disponga de tarjeta de estacionamiento, como el que disponga de tarjeta de estacionamiento no válida o de tarjeta usada indebidamente.

*Artículo 10. Clases de Infracciones.*

1. Las infracciones se clasificarán en leves, graves y muy graves.

2. Son infracciones leves las cometidas contra las normas contenidas en la presente Ordenanza que no se califiquen expresamente como graves o muy graves en los apartados siguientes y específicamente:

a) La colocación del documento original en la que su anverso no sea legible desde el exterior del vehículo.

b) La colocación de una tarjeta deteriorada que no sea posible y/o sea dificultosa la identificación de la persona titular de la tarjeta de estacionamiento de personas con discapacidad.

3. Son infracciones graves las conductas tipificadas en esta Ordenanza referidas a:

a) La utilización de la tarjeta de estacionamiento cuando a la llegada o salida del vehículo no acceda el/la titular de la misma.

b) El uso de copias de la tarjeta original de estacionamiento.

c) No colaborar y/o no permitir a los agentes de la Policía Local realizar las comprobaciones pertinentes para el control y vigilancia de las tarjetas de estacionamiento.

d) No colaborar con el Ayuntamiento, en su función inspectora, cuando éste le requiera la aportación de información o documentación complementaria.

e) La utilización de una tarjeta caducada.

4. Son infracciones muy graves las siguientes conductas:

a) La cesión de la tarjeta de estacionamiento a persona usuaria o propietaria de un vehículo distinto a aquel que transporte al titular de la tarjeta de estacionamiento.

b) La utilización de una tarjeta manipulada, falsificada, anulada o de una persona fallecida.

c) La comunicación de datos falsos o intencionadamente erróneos en las solicitudes de tarjetas de estacionamiento, cuando han sido esenciales para la concesión de las mismas.

d) La negativa a la entrega de la tarjeta de estacionamiento en cumplimiento de la sanción firme de suspensión temporal de la misma.

e) Hacer uso de tarjetas que han sido suspendidas temporalmente por motivo de infracciones a esta Ordenanza.

*Artículo 11. Sanciones.*

1. En la imposición de sanciones se deberá guardar la debida adecuación entre la gravedad del hecho constitutivo de la infracción y la sanción aplicada, considerándose especialmente para la graduación de la sanción a aplicar, la existencia de intencionalidad o reiteración, la naturaleza de los perjuicios causados y la reincidencia, por comisión en el término de un año de más de una infracción de la misma naturaleza cuando así haya sido declarado por resolución firme.

2. Arau hauste arinengatik 100 euro arteko isuna jarriko da, arau hauste larriengatik 101 – 200 euroko isuna jarriko da eta oso arau hauste larriengatik 201 – 500 euroko isuna jarriko da.

3. Arau hauste larrien kasuan, gainera, ezintasunak dituzten pertsonentzako aparkaleku txartela aldi baterako eteteko zigorra eman ahal izango da, gutxienez hiru hilabeterako eta gehienez sei hilabeterako.

4. Oso arau hauste larrien kasuan, gainera, ezintasunak dituzten pertsonentzako aparkaleku txartela aldi baterako eteteko zigorra eman ahal izango da, gutxienez sei hilabeterako eta gehienez urte baterako.

5. Oso arau hauste larriak errepikatzen badira, gainera, ezintasunak dituzten pertsonentzako aparkaleku txartela aldi baterako eteteko zigorra eman ahal izango da, gutxienez urte baterako, eta txartela ezin berritu izatea ere ekar lezake.

6. Aldi baterako eten diren txartelak erabiltzeak eta txartel horiek entregatzeari uko egiteak txartela ezin berritu izatea ekar lezake.

*12. artikulua. Badaezpadako neurriak.*

Trafikoa zaintzeko ardura duten agintari-agenteek berehala konfiskatu ahal izango dituzte faltsututa daudela egiaztatutako txartelak, jatorrikoen fotokopia manipulatuak, baliogabetuak, etenak, iraungiak edo hilik dauden titularrenak.

Egindako arau haustearen frogatzat hartuko dira horiek, eta tramitatzen den espediente administratibo edo judizialari batuko zaizkio.

*13. artikulua. Arduradunak.*

Ordenantza honetan xedatutakoaren aurkako arau hausteen erantzukizuna arau haustearen egitatea egin duenarena izango da zuzenean.

II. KAPITULUA. PROZEDURA

*14. artikulua. Zehapen-prozedura.*

Gai honetan zehapen-ahalmena gauzatzeko ezarrita dagoen legezko edo erregelamenduzko prozeduraren arabera ezarriko dira zigorrak.

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA

Udalerri honetan, ordenantza honek mugikortasun gutxitua dutenentzako ibilgailuak aparkatzeko titularrei aitortutako eskubideak izango dituzte nazio lurraldean bizi diren espainiarrek eta Europar Batasuneko gainerako Estatu kideetakoek, ezintasunak dituzten pertsonentzako aparkaleku txartelaren titular baldin badira, eredu komunitarioaren arabera, Europako Komunitateko estatu kideei emandako Gomendioan xedatutakoaren arabera, Europar Batasuneko Kontseiluak 1998ko ekainaren 4an onetsia baita, agintari eskudun bakoitzak egina.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

GIZARTE ZERBITZUETAKO ESTATISTIKAK

Eusko Jaurlaritzari dagokio, gizarte gaietan eskumena duen departamentuaren bitartez, gizarte zerbitzuen estatistikak planifikatu, koordinatu eta diseinatzeko zereginak gauzatzea, baita estatistika horien egin eta mantentze-lanak gauzatzea ere.

2. Las infracciones leves serán sancionadas con multa de hasta 100 euros, las infracciones graves serán sancionadas con multa de 101 a 200 euros y las infracciones muy graves serán sancionadas con multa de 201 a 500 euros.

3. En el caso de infracciones graves, podrá imponerse, además, la sanción de suspensión temporal de la tarjeta de estacionamiento para personas con discapacidad por el tiempo mínimo de tres meses y máximo de hasta seis meses.

4. En el caso de infracciones muy graves, podrá imponerse, además, la sanción de suspensión temporal de la tarjeta de estacionamiento para personas con discapacidad por el tiempo mínimo de seis meses y máximo de hasta un año.

5. En el caso de reincidencia en infracciones muy graves, podrá imponerse, además, la sanción de suspensión temporal de la tarjeta de estacionamiento, para personas con discapacidad por el tiempo mínimo de un año, pudiendo dar lugar a la imposibilidad de renovación de la misma.

6. El uso de las tarjetas de estacionamiento que han sido suspendidas temporalmente así como la negativa a la entrega de dichas tarjetas, podrá dar lugar a la imposibilidad de renovación de las mismas.

*Artículo 12. Medidas cautelares.*

Los agentes de la autoridad encargados de la vigilancia del tráfico podrán proceder a la incautación inmediata de aquellas tarjetas que se comprueben sean falsificadas, fotocopias de las originales, manipuladas, anuladas, suspendidas, caducadas o de titulares fallecidos.

Las mismas serán consideradas como prueba de la infracción cometida y se unirán al expediente administrativo o judicial que se tramite.

*Artículo 13. Responsables.*

La responsabilidad por infracciones a lo dispuesto en esta Ordenanza recaerá directamente en el autor del hecho en que consista dicha infracción.

CAPITULO II. PROCEDIMIENTO

*Artículo 14. Procedimiento sancionador.*

La imposición de sanciones se ajustará al procedimiento legal o reglamentariamente establecido para el ejercicio de la potestad sancionadora en esta materia.

DISPOSICIÓN ADICIONAL PRIMERA

Los/as ciudadanos/as españoles que residan en territorio nacional y los/as de los restantes Estados miembros de la Unión Europea, que sean titulares de una tarjeta de estacionamiento, con arreglo al modelo comunitario, según lo dispuesto en la Recomendación a los estados miembros de la Comunidad Europea, aprobado por el Consejo de la Unión Europea el 4 de junio de 1998, expedida por las respectivas autoridades competentes, gozarán en este término municipal de los derechos reconocidos por la presente Ordenanza a los titulares de la tarjeta de estacionamiento de vehículos para personas con discapacidad.

DISPOSICION ADICIONAL SEGUNDA

ESTADÍSTICAS DE LOS SERVICIOS SOCIALES

Corresponde al Gobierno Vasco a través del Departamento competente en materia de servicios sociales, las funciones de planificación, coordinación y diseño de las estadísticas de servicios sociales, así como la elaboración y mantenimiento de las mismas.

Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren kalterik gabe, eta aurreko paragrafoan aurreikusitako helburuetarako, Errenteriako Udalak gizarte gaien alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren departamentuari igorriko dizkio ezintasuna duten pertsonentzako aparkaleku txartelekin zerikusirik duten eta dagoeneko tramitatu dituen txartelen datu guztiak.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Arau honen maila bereko edo beheragoko araudi guztiak indargabetuta gelditzen dira, zehazki egun indarrean dagoen Errenteriako Trafikoko Ordenantza Orokorraren 3. eranskinaren 17. artikulua.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta handik hamabost egunera jarriko da indarrean.

Sin perjuicio de lo establecido en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, y con la finalidad prevista en el párrafo anterior, el Ayuntamiento remitirá al Departamento del Gobierno Vasco competente en materia de servicios sociales cuantos datos disponga en relación con las tarjetas de estacionamiento para personas con discapacidad, que haya tramitado.

DISPOSICION DEROGATORIA

Queda derogada cuanta normativa de igual o inferior rango se oponga a la presente, y en concreto el artículo 17 del Anexo 3 de la vigente Ordenanza General de Tráfico de Errenteria.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Ordenanza entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.